






















M. 10039
R. 4426

EUSCAL - ERRIJETACO

OLGUEETA, TA DANTZEEN

NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA

AITA PRAI BARTOLOME

SANTA TERESA,

MARQUINACO CARMEN


ORTOZECO

PREDICADORIAC PRESTAUBA.

IRUÑEAN. JOAQUIN DOMINGO

**Nausijaren, eta Gaztiaren
Liburuguillaan.**

**Biar dan ondo izatiagaz.
1816 urtian.**



3
✠
JESU-CRISTO
GUEURE JAUN
CURUTZIAN JOSIARI.

Nori, Jauna, ceuri, baino
besteri esquinu neguio nic,
cartilla, edo liburu chiqui one-
tan lagunai opa deutsedan
prutu guichija? Ecer badau-
ca onic, ceuria da esquina

A 2

4

guztietati. Bestia neuria. Cur-
 rutze orretan ceure Gorputz
 biguna, ederra, garbija, ta
 Jaungoicozcua arantzaz, ta
 ultzez zulotuta, colpez zauri-
 tuta, azotez eratzita, autsez, ta
 lurrez ezainduta, biazturez,
 ta ozpinez mingochtuta, odol-
 tuta, illunduta, minduta, ese-
 guita, burlaz, ta desondraz es-
 talduta, oinac, ta besuac bur-
 dina zorrotzez josita, gueu gaiti
 illten zacustazanian bateti; ta
 besteti, itsutasun zorigaistico
 bategaz, ta ez-jaquin lainotsu
 bategaz etsaijac beretuta dau-
 cazala zoro zororic, ceure Odol
 Santubaren balijuagaz erosi, ta

§
 garbitutaco arimac ibiliera, ta
 olgueeta sarritaco nasaijetan,
 eureen luurrezco gorputz us-
 telcorrai nai, ta gusto laarre-
 gui emotia gaiti; Ceuc ondo
 daquizun ustiagaz, ta neure
 arimaco, ta vijotceco gogoric
 zintzuenagaz, ceure escu jot-
 sijeetara bialduten dot, Jesus
 Curutzecua, ibiliera, ta ol-
 gueta santubeen *Neurria*, eu-
 qui leguizaneen *Gatza*, ta
 ezin leguizaneen *Ozpiña*. Zeuc
 dacuszu, nire naija eguijaz-
 cua, ta arteza dana. Baita
 nire eguina ezer ezdana bere.
 Emon eguijozu bada, Jesus
 Maitia, *Neurrizco Gatx-Ox-*

6

pin oni ceure amodijuaren su
vitzija, ixio, ta erre daguizan
luurrezco gorputzetaco pecatu-
been autsac, ta sortu daguijan
gueure arimeetan ceure vildur
santuba, ta gracia. Parcatu,
Jauna, niri, Ceuri verba egui-
ten azartuba.

Olguetia, ibiltia, demporia iragotia, aisia artutia, ta divertidutia dira, Cristinaubeen goguan, eguita-deetan, ta auan chito sarri dabilz-nac, ta oitura onai, edo galdubai ascotan izatia emoten deutseénac. Au gaiti aibeste gauza esaten dira eu-reén gainian Escritura Sagraduban, Theologijaco, ta eracuste oneco li-burubetan, Euren izenagaz batiatu-ten dira, bai gorputz cansaubari at-seen eraguiteco, bai buru necatuba arinduteco, ta bai osasun jausija sen-dotuteco, dagozan olgueta modu ino-centiac, Ta bai, pecatuba, nasaita-suna, libertadia, desonestidadia, ta oitura impamiac beti oinian euquite-co, ta gueitubaz eruateco, arimeen arerijuac asmau dituban / 'gueeta gal-

8

dubac bere. Icenac ez dirian leguez
eureenez pecatuzcuac, ta dagozan le-
guez olgueeta batzue ez chaarrac,
pecatu ez diaranac, guztia onzat
emon gura liruquee mundubac, dia-
brubac, eta araguijac.

A Alan olgueetiaren izenagaz, ta
estalguijagaz eguiten dira, Cristan-
dade guztia desondreetan dauen ga-
chac, ta ainchinaco gentilac bere lot-
saz baino, eguiten ez citubeen pe-
catubac. Oneen contra ixildu bagaric
diadar eguiten davee Eleisiaren gui-
za aldi guztietaco Gurasuac, eta Era-
cuslaac. Baita Espiritu Santubac bere
lecu ascojan, aitu gura dauenarent-
zat. (1)

(1) *Ecc.* 9. *Isai.* 3. *Job.* 21. *Exod.*
32. *Tob.* 3. *Jerem.* 15.

Olqueeta guztien artian lecuric zabalena, ta cer pensau gueiljeen daucana, da dantzia. Lenago, edo guerua-go, modu batera, edo bestera, guichiago, edo gueiljago dantzetan ezdan olguetiac, ezdauca gatzic, ezdauca gustoric. Orregaiti aimbeste gauza esan dira, ta escribidu dira, Moisen demporati ona dantziaren gainian. Batzuc lau ormarean artian sartuta, dantziac berezco izatian daucazan asmo utsai jarraituta, escribidu evce-nac. Ta bestiac, guizonaren natura-leza jausijari beguiratuta, Evangeli-joco espiritubagaz naasteco dantzia eguiten daveen moduban, esaminauta, cureen gainian verba eguin dauecnac. Areec esan dauee: dantzia berez ez-dala pecatu. Ta bestiac: dantzia be-rez pecatu izan ez arren, eguiten

10

dan moduban, ta naturaleza jausijac
guizon, ta emacume naaste eguin/lei-
jan moduban, pecatu dala, edo pe-
catuco ocasino urrecua dala.

Menturaz ezda Cristandade guz-
tian dantza desonestubagoric, ta lotsa
guichiagocoric eguiten egun arguiz,
euscal errijetan baino, Jazo leiteque
au, gueure eusqueran casic ezer bere
escribiduta ezdagualaco dantza gal-
duben gainian. Bada izanic euscal
errijetaco gentia cristinautasun andicua
euren tratu, artu emon, ta eguitade
guztietan, dira chito nasaijac euren
olganzaco dantzeetan.

Au gaiti pensau dot, azartu biar
dodala, naasteco dantzeen bereno ma-
dadicatuba azaldeetara, euscal errije-
taco Cristinau itsubac, contuban jausi
ditezan eureen uts eguite andi onetan.

Ta ene ondoric beste batec argui guei-
jagogaz , pluma obiaguagaz, ta zelo
Santubaguagaz amaitu daguijan sail
au. Escatuten duseet guztiai: au ira-
curri, noberari ezbajuaco leguez, naas-
teco dantzai beguiratu, tan dantzaririac
ondo ondo esaminau artian, ez naijela
simplezat euqui.

I. CAPITULUBA.

Olguetiaren gainian.

§. I. Nos bait zetan, edo atan olgue-
tia, naturaleciac escatuten davena, da.

§. II. Errazoezco olguetiac ezdau
eragozten Jangoicoa servidutia.

§. III. Cristinauba Jangoicuagan ale-
guere izatia , gauza ona da.

Ta ene ondoric beste batec argui guei-
jagogaz , pluma obiaguagaz, ta zelo
Santubaguagaz amaitu daguijan sail
au. Escatuten duseet guztiai: au ira-
curri, noberari ezbajuaco leguez, naas-
teco dantzai beguiratu, tan dantzaririac
ondo ondo esaminau artian, ez naijela
simplezat euqui.

I. CAPITULUBA.

Olguetiaren gainian.

§. I. Nos bait zetan, edo atan olgue-
tia, naturaleciac escatuten davena, da.

§. II. Errazoezco olguetiac ezdau
eragozten Jangoicoa servidutia.

§. III. Cristinauba Jangoicuagan ale-
guere izatia , gauza ona da.

Nos bait zetan, edo atan olguetia, naturalaeciae escatuten davena, da.

Uts eguite atreviduba, to pena andija meraciduten dauena, da, cristinaubari Jangoicuac imini deutsan, baino legue astunagua, ta carga andijagua ipintia. Jangoicuaren leguia, ta ordenia arteza, arguija, ta santuba da. Cristinau guztia icasi, ta gorde biar daveena, da. Baina ez, guichituta, mudauta, noberac gura daven moduban; ez bada Jaungoicuac, ta Eleisa Ama Santiaren Espiriubac eracusten daven moduban. Jaungoicuac condenectan davena, guizonac onzat emon ezin leguijee. Ez da, Jaungoicuac onzat emoten davena bere, guizonac condenan,

Maldicinoe baten azpian eragoizita dauca Jaungoicuac, gauza ona charra dala, ta gauza charra ona dala, eracustia (1). Propeta paltsuen lecuban conteetan ditu Jangoicuac, ta zamai andijaquin castiguetan ditu, eureen burutacinoiagaz leguia eguinda, Jangoicuaren esana balitz leguez, prediqueetan daveenac (2).

Au gaiti olguetiaren gainian verba eguiten danian, alderatu biar dirats egiteco esquina bijac, beste edocein gauzatan leguez. Bata *laarreguija*, ta bestia *guichijeguija*. Batzuc zabal-duten dituee olgeetaac pecatuzcueta-raguino. Ta beste batzuc laburtuten ditubee gach bagacuac bere. Olgueetaasco dirian leguez pecatuzcuac, cris-

(1) *Isai* 5. (2) *Jerem.* 13.

14

tinaubac inos bere eguin biar ezditu-
banac; beste asco dagoz inocentiac,
arimara gachic ezdacarreenac, ta natu-
raleciac escatuten ditu banac, errazo-
iaren legueti urten bagaric.

Olguetia da, noberaren cer eguin
nausijai, ta obligacinoiai ichita, goguac
escatuten deusan beste gauza baten,
demporia iragotia. Ta au, nosic beinaco
batzubetan naturaleciac escatuten da-
veena, da. Ezdago ezetbere mundu-
ban, inos ichi bagaric jarduteco, gui-
zonac artuco leuquian cereguinic. As-
mau vedi, naijeen dan gauzia, gueijeen
gusteetan jacona, ta berari ichi ba-
garic beti vici biar badau, laster can-
saucoda. Codicijoso batec gueijen nai
davena, da, diruba conteetia, ta polt-
saan gordeetia. Baina, jagui baga-
ric beti jardum biar baleu, diruba con-

teetan , ta gordeetau ; egun guichi barru gurataco litzaateque , biarra mudeetan. Guleru batec janian , ta edanian , dauca bere poz , ta gusto guztia. Baina , beti jaaten , ta edaaten egon biar baleu , laster aspertuco litzaateque. Jocolari batec jocuan dauca bere gogua. Baina , urte osuan egon biar baleu jocuari ichi bagaric , gainia etorrico lichaquio , jocuari isteco.

Beste ain beste dauquee , ta gogo betia emoten dabee , inos ichi bagaric equin ezquero , estudijuac , lanac , oracinoiac , errazubac , biarrac , luac , soinubac , dantzia , ta beste gauza guztia . Ez beste gauza gaiti , ez bada , gueure genijuac , condecinoiac , edo naturaleciac beti sen baten , biar baten , edo gauza baten , gobait eguin bagaric , iraun ecindavelaco. Orregaiti cein ari-

maco, ta cein gorputzeco lanetan, arei
ichita, nosbait atseetia, ta soseguetia,
gueure izatiac, edo naturaleciac es-
catuten daven gauria da.

§. II.

*Errazuarco olgueetiac, ez dau eragortzen
Jaungoicua servidutia.*

Batzuc uste davee, olgueeta guz-
tiac diriala libre cristinaubarenzat. Bes-
te batzuc, ain dira condicinoe latce-
cuac, estubac, iraacijac, eta sicubac,
ece, uste davee, olgueeta guztiac di-
riala chaarrac; ta, beti vijotz sicu,
illum bategaz ezdavillenac, ezin Jaun-
goicua servidu leijala. Oneec, icusten
badabee Praile bat, edo Monja bat,
edo Sacerdote bat, nos bait barre-
eguiten, edo puscabat olgueetan gal-

duba da. Iia ez dauca (oneen ere-
chijan) ez erliginoric, ez Jaungoicoa-
ren bildurric, ibiltia, ta olgueetia
baino.

Bitzubac ust eguiten davee. Bada
ez olgueeta guztiac dira onac; ez
guztiac dira chaarrac, edo pecatuz-
cuac. Errazuazco olgueetiac, ta diversi-
nojac ezdan eragozten Jaungoicua ser-
vidutia. Juicijozco Eracusla guztiac
autor davee eguija au. Santo Tomas,
Eleisiaren Eracusliac San Juan Evan-
gelistiaren jazuagaz, ta Casianogaz esa-
ten dau (1): Lanian diarduban gor-
putzac, nos bait atseen biar daven
leguez; alan arimiac bere nos bait
sosegau, atseen, edo arindu biar da-

B

(1) 2. 2. q. 168. a. 2.

vela bere nequia, guero gogo obia-
gaz osteria equiteco bere cereguinaí.
San Francisco Salesec beste ain beste
esaten dau (1). Ta ecarten ditú exem-
pluzat San Carlos Milangua, San Ig-
nacio Loijolacua, ta Santa Isabel Un-
gaijaco Erreguina, ceintzuc nosbait
jocuan, edo beste guaza inócenteetan
divertituten cirian, Jaungoicuaren
adisquide, ta Santu izatia atzeratu
bagaric. Inos bere ez olgueetia, ta inor
olgueetan ez icusi gura izatia, diñue
Santo Tomasec, ta San Franciscoc,
dala vijotz gogorraren, baso usainc-
cuaren, ta galdubaren señalia. Beti
tiraan daguan arija, laster etetenda.
Beti postaan davilen zaldiya, laster
amaitutenda. Ta beti gauza bati

(1) *Intr. á la vid. dev. p. 3. c. 33.*

ichi bagaric darraicon gogua, buruba,
ta gorputza bere, laster galduten dira
eurenez. Au ezaututa, Erliginoe San-
tubeen Burubac, eta Gurasuac, San-
tu izatiari ichi bagaric, eureen erre-
guleetan, ta ordenetan ipini eveen, bat-
zuc gueijago, ta beste batzuc guichiago,
Religiosuac, eta Religiosaac atseetaco,
ta eureen neque egunianguac arindu-
teco demporia.

¿Esango dogu, Santu andi areec
ez eveela euqui Ceruco arguija? ¿Edo,
ez eveela ezautu Evangelijoco Espi-
rituba? ¿Edo, ez citubeela ichi me-
dijo segurubac eureen erliginoetan,
gura davena, Santu izateco? Ezin
esan guinai uts eguite andi baten
beian.

Ezda olgueetia, edo diversinoia
artu biar opicijoz, ta gogoz, popuer-

traco lana, edo cereguina balitz le-
 guez; ez bada gorputzari, ta entendi-
 mentubari atseen eraguiteco, ta gogo
 barrijagaz, ta animo gueijagogaz bere
 eguiquizunari jarraituteco. Gurariz, ta
 gogoz artuten badira olgueetaac, eu-
 renez onac izan arren, olgueetaco bo-
 rondate laarreguija gaiti, ezdira izango
 onac. Ta guichiago, edo gueijago era-
 gotzico davee Jaungoicua servidutia.
 Baina alaco olgueetaco apicinoia, edo
 gurari laarreguija ezda errazuazcua
 arimaraco, Evangelijo Santubac era-
 gotzita daucalaco. Errazuazco olguee-
 tiac, esaten da bada, ezdabela era-
 gozten Jaungoicua servidutia. Ez, al-
 dia bateti, edo besteti erreguelati
 campora dagan olgueetia gasti.

§. III.

ni

*Cristinauba aleguere izatia ez da berez
gauza chaarra.*

Ojala, mundutarrac ezautuco balevee eguija onen indar guztia! ¡Ojala, topauco balevee, dagan lecuban alegrija eguijazcua! ¡Ojala, pozu chistarretaco ur berdiai, ta mingochai ichita, juango balira vizitzaco iturri gozoco ur garbijac, ta pozgatrijac edaater! ¡Egitoco quipula garratzai larga, ta Ceruco Mana gozua gustetara! Orduban ezautuco leuquee cristinaubac, ce gozua, ce alegueria, ta ce atseguinezcua dan gueure vizitzia.

Ez da gueure Jaungoicua ez zitala, ez urrija, ez prestubeza, ez tristia; ez bada arteza, zuzena, zabala,

ugarija , vijotz nasaicua , ta alegue-
 ria, biar dan moduban, aitu ezquero.
 Ezdau Jaungoicuac condeneetan ale-
 guere izaria , ta umore ona euquitia.
 Conciencia garbijac beragaz dacar,
 ezdaquit celaco contentu bat, poz bat,
 alegrija bat, ta esan ezinleijan , viot-
 zeco nasaitasun bat, eta libertade bat.
 Espiritu Santubac lecu ascotan encar-
 gueetan deutsu Jaungoicuaren bildur
 Santuba ; baina ezdau onec gueure
 vijotzeiati quenduten alegrija eguijaz-
 cua. ¿ Ceinbat lecutan Escritura Sa-
 gradubac esaten deutsu , poztu gai-
 tezala , consolau gaitezala, ta alegrau
 gaitezala ? ¿ Cein bat bidar Eleisa
 Ama Santiac combideetan gaitu, ale-
 guere egotera ? Ezdogu Santubeen
 vizitzeetan iracurten , munda bildur
 jacon tristeza larriric, ta vijotz illu-

pie. Bai, arpeguijan aguiari jacuen alegrija, ta poza. Beste ascoren artian ene Ama Santa Teresa bat da asco, mundu guztiari aleguere izaten eracusteco. Batec irago euquezan trabajuric andijenac, ta luceenac irago cituban Santa Teresac, bai persecucinoiac, gorputzeço gaisoac, ta alaac, bai cereguin estubac, ta andijac, bai penitencijac, ta bai conciençijaco duñaac, quezçaac, eta penaac. Baina bein pusca baten baino, ez eban Santia inoc icuusi triste.

Sarri iragoten cituban Santa Tereresac gau osuac oracinoian negarrez celdaan, edo coru baztar baten Jesus maitiaren aurrian, inoc ezecusala. Baina andi jaguiten zan, inos pena bat irago ez baleu leguez arpegui alegueriagaz. Sarri evilen cilicijoz, ta

alambre zorrotzez bere gorputz virginia lotu ta. Baina Teresaren vijotzian, arpeguian, ta verbeetan ez eguan secula tristeza illunic. Alegrija gracijosa bat da Santa Teresaren marca aguirija. Au berau errenta orde ichi eutseen escribiduta Santiac bere Monjai, ta cristinau guztiai. Esaten dau: aleguere izatia dala devocinoiaren, ta vijotz onaren señalia..... Poz artuten davela bere monjaac aleguere icusijagaz.... Vizi ditezala espiritu alegueriagaz... Guztiequin tratau daguijeela, ta verba eguin daguijeela modu oneco alegrijagaz.... Maria de San Josef, Sevilaco Priorari queseetan jacon Santa Teresa, villancicuac bialdu ez eutsazalaco. *Bada naidot nic*, esaten deutsa, *ceuben artian olguetia, ta alegreetia modu onagaz*. Luurrezco vijotz tristiac,

eta illunac ez dauca ain presta era
ona , Jaungoicuari lecu zabala , na-
saija , ta amodijozcua emoteco. Vijotz
arguija , samurra, ta alegueria, pirmia,
ta sendua izan ezquero , presta era
obacua da milla vidar , Jaungoicua
serviduteco. Ez da emen ezer esaten,
pecatu eguinac arimara dacarren tris-
tecia , ta penia gaiti. Ta ain guichi,
pecatubac, eta pecatuzco gauzaac man-
duco zoruai emon oidentseen con-
tentuba , edo alegrija gaiti. Pecatu
eguinac dacarren penia , Jaungoicua
gaiti bada , arimia alegrau, ta poz-
tuten davena, da. Ta pecatubac dacar-
ren poza , ta pusca bateco alegrija,
eguijazco tristecia, penia, ta larrija,
baino besteric ezda. Pecatarijac ale-
guere iruri arren , vijotza tristia, ta
illuna dauca. Aleguere izatia gauza

26

ona da; baina Jaungoicuagan, ta Jaungoicuagaz, ez pecatubagan, ta pecatubagaz.

Alegrija eguijazcua gura davenac, topau biardan, daguean lecuban; Jaungoicuagan, Ceruco ondasunetan, ta virtute santubetan. Beti izangoda eguiija, nos bait modu onian olgueetia, guere naturaleciac escatuten davena dala; ta vijotz triste illuna baino, arguija, ta alegueria berez, Jaungoicua, serviduteco, presta era obacua dala

II. CAPITULUBA.

§. I. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian olgueetiaren beraren parteti.

§. II. Jaungoicua opendidu bagaric,

26

ona da; baina Jaungoicuagan, ta Jaungoicuagaz, ez pecatubagan, ta pecatubagaz.

Alegrija eguijazcua gura davenac, topau biardan, daguean lecuban; Jaungoicuagan, Ceruco ondasunetan, ta virtute santubetan. Beti izangoda eguiija, nos bait modu onian olgueetia, guere naturaleciac escatuten davena dala; ta vijotz triste illuna baino, arguija, ta alegueria berez, Jaungoicua, serviduteco, presta era obacua dala

II. CAPITULUBA.

§. I. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian olgueetiaren beraren parteti.

§. II. Jaungoicua opendidu bagaric,

celan olgau leitequian demporiaren
parteti.

§. I.

*Jaungoicua opendidu bagaric, celan di-
vertidu leitequian olgueetiaren
parteti.*

Pecatu ezdan moduban, celan ol-
gau leitequian esatera orduco, jaquin
biar da : Cristinau bacochoac daucan
leguez , aparteco echuria , aparteco
guenijua, ta aparteco penseeta modu-
ba ; alan dauqueela gueijeenac apar-
teco gogua , bata gauza batian , ta
bestia bestian divertiduteco , ta ol-
gueetaco. Batzuc simpleza bategaz ol-
gueetan dira , comediya baten , edo
cecenetan baisen ondo. Cesar Augusto,

Mundu guztiaren Aguintarija umia-
quin *donez, ala parezca* olgueetan zan.
Vianto, Lidiaco Erreguia, ugarasijuac
artuten. Domiciano, eulijac ilten. Art-
gerjes Erreguia, gorubetan. Alan beste
ascoc, ezer bere ezdirian gauzac,
artuten dituvee diversinoetzat. Onaco
aparteco bacocharen gogoco olgueetac
gaiti, ezin erreguela seguru bat imini
legui. Izan leitequez onac, baita arin
onac bere.

Juicijo on baten erreguela perz
ecarti leguizan, ta casic gueije-
nac nai oiditubeen olgueetaac dira:
Jocua, Eitza, Pasiua, Soinuba, ta
dantzia. Ta eurac examinau biar dira,
celan ez dirian charrac.

Jocua da olgueeta bat berez, inoc
bere condeneetan ezdavena. Guraari
laarreguijagaz, ta gogotasun vitzijagaz

jocatuten bada, beti izango da paltia
Jaungoicuaren veguijetan guichiago,
edo gueijago. Bacocho bere laneetan
cansauta daguanian, pusca baten jocuan
olgueetia, berez pecatu dala, ez dau
inoc ezaten. Baina bagoz legue batzuc,
jocuaren gainian gorde biar dirianac,
ona izango bada.

1. Suerteco jocuac eragotzita
dagoz legue guztietan, descuido ut-
seuac dirialaco. 2. Jococo diversi-
sinoia artu biatda, demporia iragote-
co, ez ango irabacija gaiti. 3. Jococo
ornidute, edo tantu bacochoian errial
bat baino, gueijago jocatutia, eragor-
zita dago Espainaco legueetan aberat-
seentzat, ta guztientzat. Ta erriala bera
escuban dala, ez guero paguee-
tacuan. Joco aldi bacochoian ogueta
amar ducat, baino gueijago jocus

ezinleguiz. Alan aguindutendau Carlos III. guere Errege Jaunac, leenagoco guere Erregue Jaun guztien jocuaren contraco leguiac onzat emonaz. Legue oneen contra jocuan irabazten dana; atzera biurtu biarda conciencijan; maisuric jaquituneenac dinuenez Santo Tomassegaz (1). 4. Suerteco jocuaz gainera beste jocu modu asco eragotzita dagoz Sercerdote jaunai; ta Eleisa guizonai (2). 5. Engañuzco jocuac beti dira chaarrac. 6. Eragotzitaco lecuban jocuan eguitia, jocua ona izan arren; ezda ondo. Nai davenac; jocuan eguiteco, echia, edo lecuba gau; ta egun prest euquitia, pecatuzat condenee-

(1) 2. 2. q. 32. a. 7. (2) *Trid. sess. 22. c. 1. de reform.*

tan davee Eracuslaac San Carlos Milanguagaz (3), inori pecatu eraguiteco, ocasinoia dalaco.

Esan dirian gauzeetan paltau bagaric; jocuan olgueetia ez da berez gauza chaarra. Erri batzubetan egotendira pelota lecubac, ta bolaalecubac, gentia divertiduteco. Au gauza chaarra ezda.

Eitza, ta *arraincatzia* dira olgueeta inocentiac, ta ascotan provechucuac. Echeo cereguineen, edo osasunaren caltian ezbadá, libre dan demporan eitzian, ta arrainac artuten olgueetia, ezin inoc condenau legui.

Pasiua berez ez ona, ta ez chaarra da. Ascotan izango da ona.

(1) *Instrut.* §. 31.

38

Buru necatuba arinduteco, edo osasuneraco pasietia gauza ona da, ta ascotan biarrecua. Baina inoc ucatu ezin legui, pasiuaren achaquijagaz gauza chaar asco eguiten diriana. Gurasuac, eta ugazabaac ez davee lò egon biar, seme alavaac, ta otsegu-uac pasiora duazanian.

Soinuba da beste olgueeta bat berez inocentia. Edoceinec soinuba jolegui, pecatu eguin bagaric. Ainguerubac bere jo even Jesus jaijo zanian. Ceruban bere jotendavee. Eleiseetan bere jotenda. Soinuba joteco, erramientac bardinac izan ezarren, soinu guztiac dira bardinac, orain toqueetan danez. Cein organuba, cein biolina, cein guitarria, cein tambolina, cein trompia, cein sartain zaar bat, (baseerrijetaco viguireetan nsec-

tan dan leguez) guztiequin jotenda
soinuba. Soinuba bada ona , ta one-
racua , joiquijac bere onac dira. Soi-
nuba bada pecaturacua , joiquijac, eta
jotia bere pecatuzcuac dira orduban.
Jobedi bada soinuba, gentia alegue-
retaco , baina ez pecaturaco.

Soinubari oidarraico dantzia.
Soinubagaz , ta dantziagaz eguitenda
piestia , sarauba , viguiria.....

Dantziaren gainian gauza asco es-
cribidu dira. Dantziari bere izate
utsian, edo , oinaquin soinubari ce-
lan jarraituten jacon baino, beguiratu-
ten ezjacola, mila abonuean leguiz bere
pabore , ezertan paltan bagaric. Ta,
jazo oidan, ta jazoten dan moduban,
beguiratu ezquero , mila maldecinoe
ezarten jaco errazoiagaz. Eguija da:
Dantza galdubac noc zaintu asco

34.

dauqueez. Dantza zaliac azala lodija dauquee. Erremientaric zorrotzeenac dira motzac , pecatuzco dantzaac quenduteco. Tiroric zucenenac ez dira itura elduten. Colperic indartsubeenac alrian gueratuten dira. Au buruban sartuta euquiarren, Euscal errijetan daguan baino, ez jaquite guichiago egon dein pecatuzco dantzeen gainian , ta Cristinaubac vitci ditezan jaquinaren gainera, pensau dot, eguiija batzuc arguitara ateratia.

Ta Dinot : I. Dantzari eguitia berez ezdala pecatu (1). Berez pecatu balitz, beti izango litzaateque.

II. Persona batec bacarrian, nai

(1) *S. Thom.* 2. 2. q. 168. a. 3.
S. Franc. Sal. Intr. á vid. dev. p.
g. c. 33. Bened. XIV. Instr. 76.

guizonezcuac, ta nai emacumiac dantz-
 zan eguitia, berez ezdala pecatu.
 David Erreguiac bere eguin evan Arca
 Santubaren aurrian (1). III. Guizo-
 nezcuac alcarregaz, emacume baga-
 ric dantzan eguitia, gauza chaar-
 ragoric esan, edo, eguiten ezdavee-
 la, ezdala pecatu. IV. Emacumiac al-
 carregaz guizonezco bagaric, ta canta,
 edo soinu indecente bagaric dantzan,
 edo pandanguan olgueetia, ez dala
 pecatu (2). Aaronen atreba Mariac
 bere eguin eban beste emacumecquin,
 soinuba jota, Faraonen escu gogorre-
 tati Israel librau zanian (3). Esan
 dirian modubetan dantzan eguitia, ta

— *Reg. 2. c. 6. (2) Colect. 6. pre-*
cept. art. 5. Sect. 10. Exod. 15. 2133

(1) *Reg. 2. c. 6. (2) Colect. 6. pre-*
cept. art. 5. Sect. 10. Exod. 15. 2133

olgueetia , ezdan juicijozcoc conde-
neetan. Piloteac bere eguin euquian,
caridadia galdu bagaric; ta cristinau
guztiac bere eguin leguijee. Catigu
dagozan emacumiai eragozten jacue
dantzan bacarric eguitia , seifia gal-
duteco , dauqueen arriscuba gaiti.

Beste guizon, ta emacumeen ar-
tian naaste eguiten dirian dantzaac,
cer icusi asco dauquee.

Jazo leiteque , nos edo nos, pe-
catu ez izatia. Baina esan legui alaco
dantzaac gaiti, Ene Ama Santa Te-
resac eun guzurren arteco eguiija giati
esaten evana: ezda erraz, cinaan, eun
guzurren artian eguiija bat apartetean.

Bada ezda asco errazago izango, gui-
zon , ta emacumeen naasteco dant-
zeen artian pecatu bagaco bat apar-
teetan. Ezin ipini legui ordu baco-

cheraco, lecu bacoheraco, lagun ba-
 bacoherentzat, ta dantza naastau ba-
 cocharentzat erreguela bat, nos dan
 pecatu mortala, nos dan veniala,
 edo nos ezdan pecatu, esateco. Esan-
 da gueratuten da, celan olgau leite-
 quian, Jaungoicua opendidu bagaric,
 olgueetiaren beraren parteti.

§. II.

*Jaungoicua opendidu bagaric, celan ol-
 gau leitequian, demporiaren parteti.*

Ibiltia, edo olgueetia, berez izan
 ezarren chaarra, edo pecatuzcua, izan
 leiteque demporiaren parteti. Ta au
 modu bitara, edo dempora gueijegui
 olgueetan iragoten dalaco; edo era-

gotzitaco demporaan olgueetan dalaco. Dempora laarreguijan irauten badau olgueetiac, izango da pecatu, edo mortala, edo veniala. Gauza guztiac dauquee eureen demporia, dino Espiritu Santubac. Ta olgueetiac bere euqui biardau bere errazuazco tercijua. Cristinaubeen estadubac, eta condicinoiac ez dira bardinac. Opicijuac, eta cereguinac bere ez. Osasuna, ta guenijua bere ez. Ta orregaiti ezin señalau legui guztientzat erreguela bat, olgueeta laarreguijagaz, nos, eta cetaraguiño pecatu eguiten dan, esateco. Beti izango da eguija, Jaungoicuiac ezgañtubala mundura ecarri, alperterijan, ta olgueetan vizitzia iragoteco; ez bada, bacoachac bere estaduban, ta opicijuan biarra eguiteco. beti izango da eguija, errazoe

zuzeneti aurreraco olgueetia, edo erra-
 zoiac, ta estadubac escatuten daven,
 baino dempora gueijago olgueetan ira-
 gotia, pecatu dala, veniala beti, ta
 ascotan mortala. Beti izango da eguija,
 alperrerijac, ta olgueeta utsac daca-
 zala asmo chaarrac, ta burutacinoe
 gaistuac. Beti izango da eguija, Ca-
 balleruac, aciendia governeetaco, errija
 exemplu ona emoteco, ta arimaac santu-
 tuteo; Señoraac, eheco gauzai co-
 bru emoteco, seme alavei, ta ots-
 eguinai dotrinia, ta Jaungoicua servi-
 duten eracusteco, ta euren arimai
 obeto cuidado eguiteco; Sacerdote
 Jaunac, liburu onac iracurteco, Jaun-
 goicuaren Verbia eracusteco, Sacra-
 mentu Santubac Jesucristoren izenian
 eguiteco, ta cristinaubeen concien-
 cijetaco duduac erabaguiten, tercijo

40

baten jaquiteco; nequezarijac, opicia-
liac, Prailiac, monjaac.....Dinot: eu-
reen estaduco cereguinai cobru emo-
teco, biar daveen demporia, iragoten
badavee onec guztioe olgueetan,
eguingo dabeela pecatu. ¡Oh, ceasco-
dirian, ta ce guichi compesetan di-
rian onetarico pecatubac! ¡Oh, ce
guichi estimetan dan dempora san-
tuba!

Olgueetia berez izan arren ona,
izan leiteque chaarra, eragotzitaco
demporaan dalaco. Aguirico olguee-
taac, eta diversinoe publicuac era-
gotzita dagoz Domeeca, ta jai osue-
tan, meza nausitaco, sermoetaco, vis-
peretaco, procesinoeco, ta Altaraco
Sacramentuban Jesus aguirijan da-
guan arteco demporeetan. Olgueetia,
edo diversinoia inocentia izan arren,

eragotzitaco demporaan bada, male-
 cijaz jastenda. Erri guztiaten oneraco
 Eleisaan cereguin Santubac eguiten di-
 rian artian, ezdau Eleisa Ama San-
 tiac parcatuten aguirico olgueetaric. Di-
 not: *aguirico olgueetaric*. Ez, ezcutu-
 betacuac, echezulo, edo taberne-
 tacuac ontzat emoten ditubalaco, ez-
 bada, oneec erremedijau ezinda, areec
 eragozten ditubalaco. Ezda á, olguee-
 taco demporia; ezbada templu Santu-
 ban Jaungoicua alaveetaco demporia.
 Ta templura juan ezindanac, bere
 echian, edo egon lecuban Jaungoi-
 cuari graciaac emoteco, ta miseri-
 cordijac escatuteco demporia. Iracurri
 bitez Eleisiaren batzaarretaco erre-
 guelaac. Inocencio XI. garren, Aita
 Santu Erromacuaren, ta Cristindadeco
 Erregue Jaun aseoren ordenaac, ta